

Garazi Mujika Lasa

B maila • 2 aipamena

Garazi Mujika Lasa naiz 14 urteko Beasaindarra. Andramendi ikastolan ikasten dut eta nire zaletasunak, dantza eta saskibaloia dira. Pandemia dela eta denbora libre asko izan dut eta mendian ibiltzeko eta bertsotan aritzeko denbora areagotu zait.

Bertso hauetan berdintasunari buruz hitz egiten dut, ez baitzait iruditzen munduan asko dagoen gauzetako bat denik. Gai honi buruz orduak eta orduak eman ditzazket hitz egiten baina gaurko honetan sei bertsotan garatu ditut hainbat arlo. Badaukagu nahiko lan mundua iraultzen, ea asmatzen dugun berdinki bizitzen.

Espero dut zuek ere nirekin bat egotea!!



Doinua: Konplize ditut eta

BERDINTASUNA

Oraindik ez dakizu
berdinak garela?
Gona edota galtzak,
arropak direla,
libreak gara denak,
hori da horrela,
zu ere konturatu
askea zarela *(bis)*

Maitasunean ere
ezberdina zara,
transexual, lesbiana
edo gay izanda,
berdinak gara denok
egia esanda,
askeak gara eta
hori horrela da! *(bis)*

BERTSOAK

Herrialde(e)n artean
ezberdin izana,
bakoitzari emanaz
botere andana,
munduko mapen marrek
dute zer esana,
zure jaioterriak
finkatzen du dana (*bis*)

Jaiotzen garenetik
hauze da galdera,
mutila edo neska
da dudan aukera?
Jostailu motagatik
ezberdintzen gera,
mutilak urdinera
neskak arrosara (*bis*)

Generoa dugunez
gizartean zama,
lanpostuen aldetik
zer nolako drama!
Kasu hontan gizonek
soilik dute fama,
ta etorkinak dira
kaltetuen ama (*bis*)

Badaukagu nahiko lan
mundua iraultzen,
generoen borrokak
gaitu gu nekatzen,
mundua berrituz ta
gauza txarrak kentzen,
ikas dezagun berdin
batera bizitzen (*bis*)